

Jaialdia Giza Eskubideen Zinemaldia

20  25





Jaialdia GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Giza Eskubideen Zinemaldiaren 22. edizioak, Donostia Kulturak Giza Eskubideen sailaren laguntzarekin antolatzen duenak, apirilaren 4tik 11ra ospatu zuen sail ofiziala, nahiz eta aurreko egunetan intereseko hainbat ekitaldi antolatu zituen. Proiekzioek, eztabaidek eta erakusketek argitasuna, hausnarketarako tarte eta aktibismoa sustatu zituzten berriz ere, zinemarik onena eragile nagusi izan zuen kalitatezko kultura-eskaintzaren bitartez.





Filmoteca Humana, José Antonio Vitoria © Floro Azqueta



Empoderío © Floro Azqueta

Euskadiren eta Frantziaren arteko migrazio-larrialdiari buruzko **Faisaien irla** euskal ekoizpenak inauguratu zuen sail ofiziala. Estreinaldi horrekin batera, **Empoderío** eta **Flying Hands** dokumentalak proiektatu ziren. Eta bertako zinemaren presentzia garrantzitsua osatzeko, bakardadeari buruzko **Filmoteca Humana** ikus-entzunezko ekimena eta, lehen aldiz, euskal film laburren lehiaketa.

8.648 ikusle joan ziren Jaialdiko zinema-proiektzioetara: 4.839 lagun Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharreko 21 emanaldietara; 3.498 ikasle Antzoki Zaharreko goizetako 9 saioetara, eta 311 lagun Tabakaleran, **Zinema eta Memoria** zikloaren barruan, programatutako hiru saioetara.



Flying Hands, Paula Iglesias & Marta Gómez © Floro Azqueta

7.661 lagunek bisitatu zituzten antolatutako hiru erakusketak: **Mauthausenetik haratago**, **Francesc Boix argazkilaria** (Okendo Kultur Etxea), **Kaliforniar ametsa** (Aiete Kultur Etxea) eta **Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XIII. edizioa** (Victoria Eugenia Antzokia).

Gainerako jardueretan —mahai-inguruak, antzerkia eta **Konekta Tu** online jolasa— 697 lagunek hartu zuen parte. Guztira, 17.006 parte-hartzaile izan zituen Jaialdiak.

Helena Taberna zinemagile nafarrari emandako ohorezko sariarekin amaitu zen emakumezko errealizadoreen presentzia nabarmena izan zuen astea, hala nola **Lara Izagirre, Lidija Zelovic, Nagore Eceiza, Tamara Iglesias, Paula Iglesias** eta **Marta Gómez**. Publikoaren harrera bereziki ona izan zuten solasaldiek; gai asko jorrazteko aukera eman zuten, nola Amerikako Estatu Batuen edo Argentinaren politikak hala ingurumenaren edo *rider*-en lan-eskubideen defentsa.



Kaliforniar ametsa erakusketa © Floro Azqueta



Mauthausenetik haratago, Francesc Boix argazkilaria erakusketa © Floro Azqueta



Helena Taberna © Floro Azqueta